

ESKARI AGREGATUAREN ETA ESKAINTZA AGREGATUAREN EREDUA


- 1. Eskari agregatua**
- 2. Eskaintza agregatua**
- 3. Oreka makroekonomikoa**

Orain ez dugu merkatu bat aztertuko (autoen merkatua edo sagarren merkatua) orain ekonomia bere osotasunean aztertuko dugu.

Eredua, beraz, apur bat ezberdina izango da:

Ardatz horizontalean (X) ez dugu ondasun baten kopurua ipiniko. Ipiniko duguna zera da: ekonomia batean zenbat ekoizten den edo zenbat eskatzen den (ondasun eta zerbitzu guztiak kontuan hartuta).

Eta ardatz bertikalean (Y) ez dugu ondasun baten prezioa ipiniko, ondasun eta zerbitzu guztien prezioak ordezkatzeko dituen indizea baizik.



Merkatu batean gertatzen zen bezala, ekonomia osoan ere, prezioak igotzen direnean ekonomia osoan eskatzen dena gutxiago izango da.

Eskari agregatua

Eskari agregatua (EA) honako hau da: ekonomia-eragileek (familiek, enpresek, sektore publikoak eta kanpo-sektoreak) EROSI nahi dituzten eta gure herrialdearen barnean EKOIZTEN diren amaierako ondasun eta zerbitzuen kantitatea.

$$**EA = K + I + G + X - N**$$

Beraz, prezio maila baterako, eskari agregatua ^(DA) hauxe izango da:

$$DA = C + I + G + X$$

Non $X = \text{esportazioak} - \text{inportazioak}$
Zergatik X ?

ESKARI AGREGATUA:

DA = KONTSUMOA + INBERTSIOA + GASTU PUBLIKOA + ESP. GARBIAK

BAINA, GURE EKONOMIAN ZENBAT EKOIZTEN DA?



GURE HERRIAREN MUGA FISIKOEN BARNEAN EKOIZTEN DENARI

BARNE PRODUKTU GORDINA (**BPG**) DEITZEN BADIOGU, ORDUAN
BERDINTASUN HAU DAUKAGU:

$$\begin{aligned} DA = & \text{KONTSUMITZEN DUGUNA (kanpoko zein barrukoa)} \\ & + \\ & \text{INBERTSIORAKO ERABILTZEN DUGUNA (kanpoko zein barrukoa)} \\ & + \\ & \text{GOBERNUAK EROSTEN DUENA (kanpoko zein barrukoa)} \\ & + \\ & \text{ESPORTATZEN DUGUNA} \\ & - \\ & \text{INPORTATZEN DUGUNA} \end{aligned}$$


GURE HERRIAN EKOIZTEN DUGUNA = BPG

Eskari agregatua

Eskari agregatua hainbat faktoreren menpekoa da. Garrantzitsuenak honako hauek dira:

- **prezio-maila**
- **itxarobideak**
- **zerga-politika eta diru-politika**
- **munduko ekonomia**

Eskari agregatua



Eskari agregatua

EA kurbak zer adierazten duen hobeto ulertzeko, beharrezkoa zaigu jakitea **zergatik daukan malda negatiboa**, batetik, eta **zein faktorek mugiarazten duten**, bestetik.

EA kurbak zergatik duen malda negatiboa

1

ABERASTASUNAREN ERAGINA

Prezioek behera egiten badute aberastasun erreal handitu egingo da.

Hori dela eta, prezioak jaistean diruak balio handiagoa izango du (hau da, diruaren eros-ahalmena handiagoa delako;)

Ondorioz, gizabanakoak aberatsago sentituko dira, gehiago gastatu nahi izango dute, eta ekonomiako eskari agregatua handitu egingo da.

Kontrakoa gertatuko litzateke, prezioak igoko balira: eskari agregatua murriztu egingo lirateke.

EA kurbak zergatik duen malda negatiboa


2

NAZIOARTEKO MERKATARITZAREN ERAGINA

Ekonomia ireki batean (kanpo-sektorearekin harremanak dauzkana, alegia), **herrialde barneko prezio-maila beheratzen** denean, barneko ondasun eta zerbitzuak erlatiboki **merkeagoak** izango dira atzerrikoak baino, eta, ondorioz, **esportazioak ugaltu eta inportazioak gutxitu** egingo dira.

EA kurba lekualdatzen duten faktoreak

Horietako faktore nagusiak honako hauek dira: **1) itxarobideak**; **2) zerga-politika eta diru-politika**; eta **3) munduko ekonomia**.



Eskaintza agregatua

Eskaintza agregatuaren kurbak (SA kurbak) adierazten du ekonomiako ondasun eta zerbitzuen prezio-mailaren (P-ren) eta herrialdeko enpresa guztiek ekoiztutako BPG errealaren (Y-ren) arteko harremana.

- Eskari agregatuaren (EA) kurbak beti malda **negatiboa** du
- Eskaintza agregatuaren (SA) kurbak **bestelako itxura bat** izango du ekonomian aintzat hartzen dugun epearen (epe labur edo epe luzearen) arabera.

Bereizketa hori egiteko, aurrez, bi kontzeptu hauek ulertu behar ditugu: **produkzio agregatuaren funtzioa**, batetik, eta **enplegu osoko produkzio-maila**, bestetik.

Eskaintza agregatua

Bereizketa hori egiteko, aurrez, bi kontzeptu hauek ulertu behar ditugu:

- **produkzio agregatuaren funtzioa**, batetik, eta
- **enplegu osoko produkzio-maila**, bestetik.

Eskaintza agregatua

▣ Enplegu osoko produkzio-maila (Y_{EO})

Enplegu osoko produkzio-maila (edo produkzio potentziala: Y_{EO}) da, (hots, ez baldin badago borondatezko langabeziarik).

Y_{EO} ekonomiako produkzio-ahalmen osoa erabiliz ekoizten den guztia da; hau da, **ekonomiako faktore erabilgarri guztiekin (L_{EO} , K , T baliabideekin) lor eta modu iraunkorren mantentzeko produkzio-maila maximoa.**

Eskaintza agregatua


Horrela, bada, aurreko bi kontzeptuak definituta, dagoeneko gai gara ulertzeko Makroekonomian **epe laburrak** eta **epe luzeak** zer esanahi eta harreman duten.

- **Epe luze makroekonomikoa**
- **Epe labur makroekonomikoan**

ESKAINITZA AGREGATUAREN KURBA

- EPE LUZEAN: Malda bertikala da
- EPE LABURREAN: Malda positiboko kurba da


EPE LABURREAN: ESKAINTZA AGREGATUA



Prezioak eta kostuak aldatuz gero...

2. . . . Ekoizpena aldatzen da

EPE LUZEAN: ESKAINTZA AGREGATUAREN KURBA



Eskaintza agregatua

Epe luzea hauxe da:

orekara iristeko nahikoa luzea den denbora-tartea.

Eskaintza agregatua

Epe laburraean, kapitala (K), lana (L), eta teknologia (T) finkoak dira, ez dira aldatzen, iraganean hartutako erabakien arabera koak baitira.

Eskaintza agregatua

Ondorio moduan, lan-merkatuko egoeraren arabera (enplegu osoa edo ez), **eskaintza agregatuaren bi kurba bereizten dira**, bakoitza epe jakin bati dagokiona:


Epe luzeko eskaintza agregatuaren kurba edo klasikoa (SA epe luz.).

Epe laburreko eskaintza agregatuaren kurba edo keynestarra (SA epe lab.).

Eskaintza agregatua


Epe luzeko eskaintza agregatuaren kurba (edo eskaintza agregatu klasikoa)

Adierazten du zein den ekoizten eta eskaintzen den BPG errealaren kantitateak (Y -k) eta prezio-mailak (P -k) duten harremana **epe luzean**, hau da, BPG erreala eta BPG potentziala bat datozenean.



Eskaintza agregatua

Laburpen gisa, honela egin genezake epe luzeko eta epe laburreko eskaintza agregatuaren kurben arteko bereizketa:



Eskaintza agregatuaren kurbaren lekualdatzeak

Eskaintza agregatuaren kurba lekualdatu egingo da, produkzio-mailari eragiten dion faktoreren bat —prezio-maila izan ezik— aldatzen denean. Faktore horiek bi multzotan sailka ditzakegu:

BPG potentziala edo epe luzekoa aldatzen duten faktoreak eta

Enpresen kostuak aldatzen dituzten faktoreak

Eskaintza agregatuaren kurbaren lekualdatzeak


● BPG potentziala edo epe luzekoa aldatzen duten faktoreak

BPG potentziala (Y_{EO}) hiru arrazoiengatik alda daiteke:

- ▶ Enplegu osoko lan kantitatea alda daitekeelako (ΔL_{EO}).
- ▶ Kapital kantitatea alda daitekeelako (ΔK).
- ▶ Aurrerapen teknologikoa gerta daitekeelako (ΔT).

Kasu horietan, lekualdatu egiten dira bai **epe luzeko eskaintza agregatuaren kurba**, bai **epe laburreko eskaintza agregatuaren kurba**.

Adibidez, $L_{EO} \uparrow$, $K \uparrow$ edota $T \uparrow$ gertatuz gero...




Eskaintza agregatuaren kurbaren lekualdatzeak

● Enpresen kostuak aldatzen dituzten faktoreak

Aldaketa horiek soldata nominalari eta beste produkzio-faktore batzuen prezioei dagozkie. Kasu horretan, epe laburreko eskaintza agregatuaren kurba (SA epe lab.) lekualdatzen da. Zenbat eta handiagoa izan soldata nominala, orduan eta handiagoak izango dira enpresen kostuak eta txikiagoa izango da enpresak, prezio-maila bakoitzean, ekoizteko eta eskaintzeko prest dauden kantitatea.


Soldata nominalaren igoerak epe laburreko eskaintza agregatuaren kurba murriztuko du; hots, ezkerrerantz lekualdatuko du.

Epe laburreko eskaintza agregatuaren kurba lekualdatzen duten faktoreei *eskaintzaren perturbazio* deitzen zaie. Horietarik ezagun eta garrantzitsuenak **petrolioaren prezioaren gorakada** da.



Eskari agregatua eta eskaintza agregatua

Oreka makroekonomikoa kokatzen da EA eta SA kurbek elkar ebakitzen duten puntuan (O puntuan, hain zuzen ere).




Oreka makroekonomikoa


Eskaria oso handia bada, ekoizpena (eskaintza) enplegu osoko produkzio-maila baino handiagoa izan liteke.

Eskaria oso txikia bada, aldiz, ekoizpena enplegu osokoa baino baxuagoa izan liteke (langabezia eragiten du).

Oreka makroekonomikoa



Oreka makroekonomikoa




Beheraldi-tartea: $Y_{EO} - Y^*$

Orekako produkzio-maila (Y^*) enplegu osokoa (Y_{EO}) baino handiagoa nahiz txikiagoa izan liteke.

Ziklo ekonomikoa

Literatura ekonomikoan, gorabehera horiei ziklo ekonomiko deritze.



Gorabehera ekonomikoen bi kausa

BPG erreala (Y) enplegu osoko BPGaren (Y_{EO} -ren) gainera edo azpitik kokatzea eragiten duten bi kausa nagusiak hauek dira:

**eskari agregatuaren gorabeherak eta
eskaintza agregatuaren gorabeherak.**


Ekonomia nola doitzen da epe laburretik epe luzera?

Eskaintza agregatuaren gorabeherak edo perturbazioak

PETROLIOAREN PREZIOAREN GORAKADA

Horrek enpresen kostuen igoera eragiten du.

Mozkin-maila mantentzeko, enpresak prezioa igotzen saiatzen dira.



Ondorioz, eskaintza agregatuaren kurba gorantz lekualdatzen da.

Kasu horretan, bistan denez, ekonomiak **aldi berean** jasango ditu beheraldi ekonomikoa ($Y \downarrow$), batetik, eta inflazioa ($P \uparrow$), bestetik.

Produkzioaren murrizketa eta prezioen gorakadaren konbinazioari **estanflazio** deitzen zaio.